

IRAKASLEEN ARTEKO HARREMAN PEDAGOGIKOAK ESKOLA TESTUINGURUAN: DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTEGI BATEN KASU ANALISIA

Tesiaren egilea: Esti Amenabarro Iraola

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza

Tesi-zuzendaria: Fco. Javier Monzón González eta Nere Amenabar Perurena

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi honetan jasotzen den ikerketa kasu-azterketa bat da, Gipuzkoako hiriburuan kokatuta dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) institutu batean kokatua. Zazpi atalek osatzen dute ikerlana.

Lanak bi oinarriren baitan hartzen du aterpe. Batetik, pedagogia kritikoaren postulatuetan, eskolaren aldaketa ezin baita gizarte-errealitatearen azterketa sakon eta kritiko bat egin gabe ulertu; aldaketa sakonek eskolan oinarri sozial eta politikoetara jotzea eskatzen dute. Bestetik, balio inklusiboetan sakondu nahi dugu, pertsonarteko harremanek besteekin lan egitea eskatzen dute, beste horien presentzia eta parte hartzea sustatzeko ongizate sareak eraikiz.

Irakaslea lehen lerrora ekarri dugu, hezkuntza-egitasmo ororen ukaezinezko protagonistetako bat baita. Irakasleen arteko harremanak ezagutu, gertutik behatu eta haien inguruan gogoeta egin nahi izan dugu, eskolan haien harremanek aurkezten dituzten aldaera zein dimentsio desberdinak aztertzeko helburuz. Harremana bi pertsonaren edo gehiagoren arteko hartu-emana da, eta bere sortze, garapen eta jarraikortasunak eskolako gainerako prozesu guztiak baldintzatzen eta antzaldatzen ditu. Harremanen dimentsio pedagogikoak, ulermena eta erantzukizuna eskatzen ditu eta horiek zaindu ezean zailtasunak suerta litezke. Harremanek eskolako giroan eragin zuzena duten moduan, eskolako kultura egokitzen dute, eta gatazka eta erresistentzia asko dagoen erakundeetan nekez abia daiteke berrikuntza edo aldaketa sakonik; ondorioz, harremanen analisiak eskolaren kartografia zehatza eta zorrotza eskaintzen du.

Irakaslea munduan egoteko modu bat dela adierazi du Meirieu (2005). Ildo horretatik, hezkuntza-praktika oro besteekin elkartzeko unea da eta bestearekin (alteritatea) lan egiteko hainbat baldintza beharrezkoak dira (harremanak zaintzea eta bestetasun berri bat, besteak beste).

Baliatu dugun erreferentzia-markoa kualitatiboa izan da, hezkuntza-praktika zehatz baten analisia egin nahi izan baitugu, irakasleen praktika eta esperientziak lehenetsiz. Horretarako etnografiak eskaintzen dituen baliabideez osatu dugu lana, irakasleen esperientzia eta pentsamenduak jasotzeko arakatze narratiboa burutuz. Datuak jasotzeko, erdi egituratutako elkarrizketak eta irudi zein argazkiak (foto-elizitazioa) baliatu ditugu, eta ondoren lan honen muin diren narratiba eta errelatoak eraiki dira elkarrizketa fokalizatuen bitartez.

Datuok aztertuta, irakasleen arteko harremanek duten garrantzia berresteko moduan gara. Harremanek irakaslearen eguneroko praktika antzaldatzeko gaitasuna dute, moldatu egiten baitute praktika hori. Modu berean, harremanek denbora eta espazio oso zehatzetan forma desberdinak hartzen dituzte, eta biak, espazioa zein denbora, eremu sinboliko oso aberatsak dira eta bertan gertatzen diren esperientzia partikular zein kolektiboek irakasle-identitatean eragina dute.

Lanaren ondorio nagusia hau izan da: DBH aldian lan egiten duten eta bizi diren irakasleen harremanak aztertzea urgentziazkoa da, batez ere eskola-aldaketa eta berrikuntza sustatzeko ezinbestekoa delako. Irakaslearen ongizatea harreman horien ezaugarrien araberakoa da; are gehiago, bestelako jendarte-eredu bat sortzeko bidean (pedagogia kritikoaren norabidean), harremanak zaindu eta bestelako harreman-ereduak sustatzea ezinbestekoa suertatzen da, pertsonak, bizitzak eta gorputza(k) erdigunean jarrita, generoa, arraza eta klasea bezalako mugapenak gaindituta.